


ANTZARA EGUNA

Harkaitz Cano
Adur Larrea

1984ko azaroaren 20an, Santi Brouard tiroz hil zuten bere pediatria kontsultan. Julian Sancristobal Espainiako estatuko Segurtasun idazkariak agindua eta dirua eman zion Rafael Masa poliziarri, eta horrek Luis Morcillori eta Rafael Sanchez Ocañari ordaindu zien hilketagatik. Brouarden heriotzak zirrara handia eragin zuen Euskal Herrian. HASI alderdiko lehendakaria, HBko mahai nazionaleko kidea, Bilboko alkateordea, parlamentaria, mediku pediatra... Bere karisma eta konpromisoagatik, Euskal Herriko hainbat familia politikotan itzal handia izan zuen Brouardek. Horiekin batera, politikari lekeitiarraren beste ezaugarri ezezagunago batzuk ere jaso ditu komiki honek, adiskide eta mediku hurbila, txantxazalea, irakurle amorratua eta euskaltzale petoa ere izan baitzen. Horrela, Adur Larreak eta Harkaitz Canok fikzioaren bidez lortu dute Santi Brouarden bizitzaren eta heriotzaren hariak biltzea, ekinbide publikoa eta bizitza pribatua jostea, iragana eta oraina lotzea, garai baten kontaketa bizia mazarazteko.



KOMIKIA

ISBN: **978-84-17065-90-4**
 ORRIALDEAK: **136**
 FORMATUA: **17 x 24**
 PREZIOA: **20,00 €**

HARKAITZ CANO JAUREGI.


Lasarte, 1975

Donostian burutu zituen zuzenbide ikasketak, baina idaztea izan du beti ogibide. Lubaki Bandan hasi zen literatur jardunean eta 1994-an argitaratu zuen bere lehen idazlana, *Kea behelainoetan bezala* poesia liburua. Gerokoak dira *Beluna jazz* (1996) eta *Pasaia blues* (1999) eleberriak, *Belarraren ahoa* (2004) ukronia eta *Neguko zirkua* (2005) eta *Beti oporretan* (2015) ipuin bildumak. Hiru bider irabazi du Euskadi Saria eta bi aldiz Espainiako Kritikarena. *Twist* (2011) nobelarekin, 111 Akademia aipamena ere erdietsi zuen. Besteak beste Sylvia Plath, Anne Sexton, Hanif Kureishi, Paul Auster eta Allen Ginsberg euskaratu ditu eta nederlanderaz, galegoz, grezieraz, ingelesez, gaztelaniaz, errusieraz, alemanez eta italieraz irakur daitezke bere liburuak.

ADUR LARREA.

Bilbo, 1982

Arte Ederretan lizentziatua da, marrazketa eta ikus-entzunezkoen espezialitateetan. Geroztik, animazioa eta ilustrazioa izan dira bere jardueraren ardatz nagusiak. Ikus-entzunezkoen alorrean, zenbait ekoiztetxerekin lan egin du, baita telebistan eta publizitatean ere. Argialetxe, aldizkari eta egunkarietan kolaborazioak egin ditu (*Berria*, *Ortzadar*, *Xabiroi*, *Bertsolari*, *Argia*, *Jakin...*), eta, liburu formatuan, *Okatxu* eta *Arditutakoak* albumetan parte hartu du beste ilustratzaile batzuekin batera; horietaz gainera, bereziki eza-guna da *Gabriel Aresti BioGrafikoa* (Erroa, 2015) komikia, poeta bilbotarraren bizian eta obran oinarritua.



Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus
 www.txalaparta.eus